

## NON HARTU OSTATU

### Zer dira aterpetxeak? Zer da Hostelling International sarea?

Ostatu hartzeko leku horiek **ekonomikoak** izaten dira kasu gehienetan eta **banaka edo taldeka** erabil daitezke. Instalazioek ostatu hartzeko hainbat aukera eskaintzen dituzte eta horrela, bi oheko, lau oheko edota taldeak jasotzeko prestaturik dauden gelak dituzte. Azken horietan pertsonak sexuka banatzen dira. Hau da, gizonezkoek gela batean egiten dute lo eta emakumezkoek beste batean.

Aterpetxeek eskaintzen dituzten zerbitzuen artean, aipatzekoa da kasu askotan mantenua eskaintzen dutela. Hori erabiltzeko, ordea, erabiltzaileak bere laguntza eman behar du. Hau da, aterpetxean bazkaldu behar baldin baduzu, mahaia jartzen, otordua zerbitzitzen eta beste hainbat lanetan lagundu behar duzu. Era berean, batzutan, ezinbestekoa da izarak edota lo egiteko zakua eramatea. Aterpetxeek beste hainbat arau ere badituzte. Besteak beste, sarrera eta irteera orduak dituzte. Modu horretan, ezin daiteke instalazioetan araututako orduetatik kanpo sartu.

### Aterpetxeak mundu osoan.

#### [Munduko osoko 100 alberpetxe](#)

(English)

- Euskadin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako nazioarteko aterpetxeek [Euskadiko Aterpetxe Sarea](#) osatzen dute. Horietako batzuk pribatuak dira beste batzuk foru aldundien edo udalen menpekoak dira.
- Estatu espainiarraren instalazioak [Gazte Aterpetxeen Espainiako Sarea](#) (gazteleraz REAJ) elkarte osatzen dute.
- Nazioarte mailan, [HiHostels](#)en aurkituko dituzu aterpetxeak.

Estatuko zein atzerriko aterpetxeak erabiltzeko ezinbestekoa da [aterpekide-txartela](#) izatea.

### Kanpinak

Naturatik gertu, eta oinarrizko beharrei uko egin gabe, kanpinek oporretarako beste aukera bat eskaintzen dizute. Mundu osoan



milaka kanpin dituzu aisaildiko egunak beste modu batean igarotzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko kanpinak:

Araba

Bizkaia

Gipuzkoa

Kanpinetan arazorik ez izateko, Camping Card Internacional (CCI) txartelak ematen dizkizun abantailez goza dezakezu. Txartel hori akanpatzen duen pertsonaren nortasun agiriaren modukoa da. Gainera, hirugarren pertsona bati eragin diezazkiokezun kalteen erantzukizun zibila ere aseguratzen du. Era berean, kanpin eta kirol dendetan, museoetan eta beste hainbat lekutan deskontuak eskaintzen ditu. Herrialde batzuetan derrigorrezkoa da txartel hori, eta lekua eskatzerakoan lehentasuna ematen du.

Informazio gehiago: Federación de Euskadi de Camping